

MENDIBIL MERKATARITZA GUNEKO 2024KO MENDIBILEKO HAUR KANTINERAREN 11. HAUTAKETAREN OINARRIAK

Mendibil merkataritza-parkeko jabekideen elkargoak (helbidea: Arizmendi almirantearen kalea 9, 20302 Irun, Gipuzkoa; IFK: H-20818944) Mendibil merkataritza-guneko 2024ko haur kantinera aukeratzeko 11. lehiaketa antolatu du.

Lehiaketan parte har dezakete 0 eta 10 urte bitarteko neska guztiak. Bi kategoria egongo dira, adinaren arabera: 0 eta 5 urte artean, eta 6 eta 10 urte artean. Gehienez ere 40 parte-hartzaile onartuko dira 0 eta 5 urte artekoen kategorian, eta 30 parte-hartzaile, 6 eta 10 urte artekoen kategorian.

Parte hartu nahi duten nesken gurasoek edo legezko tutoreek izena emateko eta oinarriak onartzeko orria bete eta entregatu behar dute ekainaren 17etik 27ra. Orri hori Mendibilen webgunean deskargatu daiteke (<http://www.centrocomercialmendibil.com>).

Izena emateko orria bete ondoren, merkataritza-guneko gerentziaren bulegoan entregatu behar da. Harekin batera aurkeztu behar dira merkataritza-guneko establezimendu batean eginiko 20 € edo hortik gorako erosketa baten tiketa eta aitaren, amaren edo legezko tutorearen NANaren fotokopia.

Izen-ematea eta erosketa-tiketa entregatu ondoren, parte-hartzaile bakoitzari zenbaki bat eta banda bat emango zaizkio.

Izena emateko orriak ekainaren 17etik 27ra entregatu behar dira, 9:00etatik 15:00etara.

Epaimahaia Mendibil merkataritza-gunearekin lotutako pertsonak osatuko dute.

Parte-hartzaileek ezinbestean jantzi beharko dituzte SOINEKO ZURIA, TXAPELA, ABANIKOA ETA MENDIBILEKO BANDA.

Kantinera hautatzeko, janzkera eta desfilatzeko grazia/jatortasuna baloratuko dira, funtsean.

Puntuatzeko irizpideak aldeztu aurretik adostuko dituzte epaimahaikideek.

Kategoria bakoitzeko irabazlean saria: JOSTAILU LOTE BAT, KUXIN ETA KATILU PERTSONALIZATU BAT eta PLAN B! BAT, BIDAIATXO BAT FAMILIA GUZTIARENTZAT (OSTATU-GAU BAT GOSARIAREKIN ETA JARDUERA BAT, BI HELDU ETA BI HAURRENTZAT).

Sariak ezin daitezke diruz trukatu.

Mendibil Merkataritza Guneak beretzat gordetzen du edozein unetan hautaketa honen baldintzak aldatzeko eskubidea, baita sustapena amaitu aurretik bertan behera uztekoa ere, betiere hori egitea justifikatzen duten arrazoiak badaude. Era berean, parte-hartzaileen kopurua mugatu dezake.

Mendibil merkataritza-guneak ez du bere gain hartzen ekitaldia egin bitartean publikoak egin ditzakeen argazkien inguruko ardurarik.

Sarien irabazleek eta parte-hartzaileek eta haien gurasoek eta legezko tutoreek baimena ematen diote eta irudi-eskubideak lagatzen dizkiote Mendibil merkataritza-parkeko jabekideen erkidegoari. Gainera, erkidego horrek haien izen-abizenak, herrialdea eta bizi diren herria eta irudia erabili ahal izango dituzte, merkataritza-gunearen barruko eta

kanpoko publizitate-komunikabideetan publiko egiteko. Erabilera horrek, gainera, ez du lortutako sariaz bestelako eskubide berririk sortuko. Irabazleak Mendibil merkataritza-parkeko jabekideen erkidegoaren alde hemen aitortu diren eskubideak erabiltzeko baimenik ematen ez badu, ulertuko da irabazle horrek sariari uko egiten diola; beraz, dagoeneko jaso badu, itzuli egin beharko du.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onestea dakar.